



OSO ASTE ERRENTAGARRIA

Donostiako Aste Nagusiak hiriko ekonomian duen eragina antolaketa-gastuak baino 25 aldiz handiagoa da

Donostiako Aste Nagusia inbertsio ona da hiriko ekonomiarako. Festak Donostian duen zeharkako eragina dela-eta, **hogeita bostez biderkatzen da** hura antolatzen gastatzen den diru publikoa.

Ernesto Gasco Ekonomia Bultzatzeko eta Turismoko zinegotziak adierazi duenez, “udako gure festek aberastasuna sortzen dute hirian; diru publikoaren inbertsio ona dira eta, hori dela-eta, bultzatzen eta sustatzen jarraitu behar dugu.”

Datuok Ikertalde enpresak egindako azterlan batean ageri dira. Xehetasunez betetako lana da, eta festek hiriko sektore desberdinetan duten eragina ikertu du: hoteletan eta, oro har, ostalaritzan; garraioan; merkataritzan, e.a.

#DONOSTIA #SAN SEBASTIÁN FESTAK

2014ko Aste Nagusiko datuei erreparatuta, **1.170.631 euro** inbertitu ziren antolaketan, eta festak **26.417.246 euroko** zeharkako eragina izan zuen hiriko ekonomian.



Aste Nagusiak sortzen duen zeharkako eragina kalkulatzeko, kontuan hartzen da, batetik, zenbat lagunek parte hartzen duten festan aste osoan eta, bestetik, zenbat gastatzen duten bisitariak eta donostiarrek egun horietan.

Aste Nagusia dela-eta, iaz **360 lanpostu** gehiago sortu ziren, gutxi gorabehera.

Erakunde publikoek, festa ekitaldien ondorioz, 7.065.189 euroko sarrerak eskuratu zituzten zergen bitartez, hau da, antolaketa-gastuak baino sei aldiz gehiago eta Udalak festan gastatzen duena baino bederatziz aldiz gehiago.

Ernesto Gascok nabarmendu duenez, “batzuek esaten dute horrelako ekitaldietan dirutza gastatzen dela, baina, egia esan, hiriko sektore ekonomiko askorentzat, batez ere, hirugarren sektorearentzat, Aste Nagusia udako salbamendu tauletako bat da. Esan dezakegu Aste Nagusiko festak pagotxa direla Donostiako ekonomiarako.”

Lagun bakoitzak, batez beste, kopuru hauek gastatzen ditu festetan:

- hirira etorri eta bertan lo egiten duen lagun bakoitzak 99,3€ gastatzen ditu, batez beste, eguneko
- hirira etorri baina bertan lo egitera gelditzen ez den lagun bakoitzak, bai eta donostiar bakoitzak ere, 43,8€ gastatzen ditu, batez beste, eguneko

Hortaz, lagun bakoitzak 57,2€ gastatzen ditu eguneko, datu guztiak batera hartuta

Festetara etorritakoei egindako inkestetan oinarritzen den azterlan horrek beste xehetasun bat ere ematen du: zenbat gastatzen duen, batez beste, jendeak bere jatorriaren arabera: donostiar eta gipuzkoarrek 39,2€ gastatzen dituzte egunean; Euskal Herriko beste tokietatik datozenek, 64,9€; Estatuko turistek, 86,3€, eta, azkenik, kanpotarrek, 109,4€.

Gasto medio diario por persona

Partida de Gasto	Pernocta	No pernocta	Total	
	<i>Base</i>	<i>24,2%</i>	<i>75,8%</i>	<i>100,0%</i>
Alojamiento	35,4 €	--	8,6 €	
Hostelería	34,6 €	25,3 €	27,6 €	
Transporte	7,3 €	6,6 €	6,8 €	
Comercio	16,1 €	6,8 €	9,0 €	
Otros	5,7 €	5,1 €	5,3 €	
GASTO TOTAL	99,3 €	43,8 €	57,2 €	

Fuente: encuesta a personas asistentes a la Semana Grande

Aste Nagusira etortzen den lagun bakoitzak, batez beste, 2,3 festa ekintzatan parte hartzen du eguneko. Ikertalde egindako lanaren arabera, horrek esan nahi du egun bakoitzean 454.334 pertsona desberdinek parte hartzen dutela horrelako ekintzetan.

ASTE NAGUSIAREN BALORAZIOA

Ikertalderen txostenak oinarri duen inkestak Aste Nagusiaren oso balorazio ona islatzen du. Izan ere, 1etik 10eko eskala batean, **7,4** puntu lortu dituzte gure festek.

Gazteek (18-25 urte) eta 50 urte baino gehiago dituztenek nota handiagoa ematen diete: bi adin-talde horietakoek 7,6 puntu ematen dizkiete.

Bisitariak Aste Nagusiaren oso balorazio ona egiten dute, 8,1 puntu ematen baitizkiote, hain zuzen. Donostiarrek, berriz, puntu bat gutxiago ematen diote, hau da, 7,1 puntu.

Inkestari erantzun diotenen arabera, Aste Nagusia turismoa ekartzeko modua da (90,4), sarrerak ekartzen dizkio Donostiari (86,3) eta, gainera, udako festa giroa sortzen du hirian (80,7).